

# «Profesionaletara iristeak ez nau arduratzen»

Ander Dominguez pilotari altzatarrak afizionatu mailako DV Txapelketako finalerdiak jokatu ditu Urretxun hilaren 12an, ostirala. Dominguezek Altuna lizartzarra izango du bikotekide eta Errera eta Iruritarren aurka ariko dira.

Raul Perez

Zer moduz ikusten duzu zure burua finalurrekoei begira?

Duela hilabete, Egiako txapelketan, mina hartu nuen besoa. Harrezkerok, ia ez dut partidarik jokatu. Jabetzen naiz txapelketa oso garrantzitsua dela, eta ondo jokatuz gero, profesionaletara igaro zaitezkeela. Jubeniletan, Baezekin txapelketa honetako finalurrekoetara iritsi nintzen, baina afizionatuetan hau da azkenaurreko kanporaketa jokatu dudana lehen urtea. Aurreko bietan, lehen partidetan kanporatu gintuzten.

Bost urte dira jada, Donostiak azken aldiz Herri Arteko Txapelketa irabazi zuenetik, Azkoitiaren kontra, hain zuzen. Baezek eta zuk jubencil mailako partida jokatu eta irabazi zenuten...

Gogoan dut Atano III. lepo zegoela. Al-tza osoa bertaratu zen! Nik irabazitako


txapelik garrantzitsua da. Baezekin jubeniletan hasi nintzen jokatzeko, eta ia partida guztiak irabazten genituen. Oso gustura jokatzeko genuen elkarrekin. Orain dela urte batzuk, bakoitzak bere bidetik jo zuen. Bera Amezketako Pilota Elkartera joan zen, eta ni Intxaurrendokora. Oraindik, noiz edo noiz, elkarrekin aritzen gara: ez zaigu ahaztu elkarrekin jokatzeko. Ez dut uste Donostiak berriro Herri Arteko Txapelketa irabaziko duenik, pilotari gazte gutxi dagoelako. Adibidez, Altzako pilotalekuan orain dela urte batzuk ez zegoen ia lekunik entrenatzeko, eta gaur egun nahi adina leku dago.

Altzako frontoian harrapatu zaitugu, baina ez duzu normalean hemen entrenatzen...

Besoko lesioa dela eta, egunotan pilotakada batzuk ematera etortzen ari naiz Altzara. Normalean, Lasarte-Orian eta Hernanin entrenatzen dut. Hala ere, Altzako pilotalekuan hazi naiz, eta txapelketetan jokatzeko gonbidatzen nauten bakoitzean, gustura etortzen naiz.

Dagoeneko Euskal Herriko frontoi askotan jokatu duzu. Zein duzu gustukoena?

Antiguakoa, zalantzarik gabe, Udako Txapelketako partida guztietan beteta dagoelako.



Afizionatu mailan izan dituzun aurkari zein bikotekideen artean zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Batetik, Etxaniz. Egund profesionala da, eta gogoan dut sekulako lanak ematen zizkidala. Bestetik, nire egungo bikotekide, Altuna. Agian ezker eskuarekin hobetu behar du, baina dohain asko ditu: oso ondo jotzen du pilota, oso segurua da...

Eta zuk, ikusten al duzu aukerarik profesionaletara igarotzeko?

Oso zaila da. Hala ere, horrek ez nau gehiegi arduratzen. Profesional izateko aukera izanez gero, bada primeran; baina bestela ez da ezer gertatzen. Nik ahal dudana arte jarraituko dut pilotan jokatzeko. Egund sakearekin eta gantxoarekin nahiko ondo moldatzen naiz, baina badakit ezker eskuarekin hobetu behar dudala.

Egunotan Lau t'erdiko Txapelketa dugu jokoan. Nork irabaziko du, Titinek ala Nagorek?

Titin da faborito. Oso indartsu dabil. Niri bere jokoa asko gustatzen zait: gantxoak, moztutako pilotak... finean, beti aurrealdean jokatzeko. Olaizola II. eta Titin dira gehien gustatzen zaizkidan pilotariak.

